

GRADU AMAIERAKO LANA

“EUSKAL PILOTAREN DIAGNOSIA ETA BULTZADA ANTZUOLAN”



EGILEA: ITURBE ZABALO, ION

ZUZENDARIA: GURIDI LOPATEGUI, IBAI

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

IKASTURTEA: 2015-2016 IKASTURTEA

DEIALDIA: 2. DEIALDIA

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	4
2.	METODOLOGIA	7
3.	DIAGNOSI FASEA, INGURUAREN AZTERKETA.....	8
3.1.	GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA.....	8
3.1.1.	Xedea eta ikuspegia.....	8
3.1.2.	Antolaketa.....	9
3.1.3.	Planak	9
3.1.4.	Lizentziak.....	12
3.2.	ESKOLA KIROLA GIPUZKOAN.....	13
3.2.1.	Eskola kirola eta pilota gipuzkoan.....	15
3.2.2.	Eskola kirola eta pilota Antzuolan	16
3.3.	OLALDE EUSKAL KIROLAK ELKARTEA	17
3.3.1.	Historia	17
3.3.2.	Klubaren helburuak	18
3.3.3.	Klubaren antolaketa	19
3.3.4.	Lizentziak.....	21
3.3.5.	Klubaren planak.....	22
3.3.6.	Klubaren laguntzak.....	22
3.4.	HAUSNARKETA ETA ONDORIOAK.....	23
4.	HELBURUAK.....	26
5.	AMIA MATRIZEA	26
5.1.	ERAKUNDE BAKOITZAREN AMIA:.....	27
5.1.1.	Gipuzkoako pilota federazioaren amia:	27
5.1.2.	Antzuolako eskola kirolaren amia:	28
5.1.3.	Olalde klubaren amia:	28
5.2.	ARAZOAK:	29
6.	SISTEMA EGOKITUA:.....	31
6.1.	PUNTUAKETA EMATEKO IRIZPIDEAK:	31
6.2.	SISTEMA EGOKITUAN ERABILIKO DEN PUNTUAKETA.....	31
6.3.	ERAKUNDE BAKOITZAREN SISTEMA EGOKITUA.....	32
6.3.1.Gipuzkoako pilota federazioaren sistema egokitua eta arazo sailkapena	32
6.3.2.	Eskola kirolaren sistema egokitua eta arazo sailkapena:.....	37
6.3.3.	Olalde klubaren sistema egokitua eta arazo sailkapena:	43
7.	PLANAK, PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK	49

7.1.	GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOAREN INGURUKO PLAN, PROGRAMA ETA PROIEKTUAK:.....	49
7.2.	ESKOLA KIROLAREN INGURUKO PLAN, PROGRAMA ETA PROIEKTUAK:.....	52
7.3.	OLALDE KLUBAREN PLAN, PROGRAMA ETA PROIEKTUAK:	55
8.	PROIEKTUEN DESKRIBAPEN FITXAK:	59
8.1.	GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOAREN INGURUKO PROIEKTUEN FITXAK:	60
8.2.	ESKOLA KIROLAREN INGURUKO FITXAK	67
8.3.	OLALDE KLUBAREN PROIEKTUEN FITXAK:.....	73
9.	BALORAZIO FITXA:.....	86
10.	ONDORIOAK:	87
11.	BIBLIOGRAFIA:	88
12.	ERANSKINAK	91

1. SARRERA

Nire gradu amaierako lana egitea egokitu zitzaidanean, argi nuen nire lana interesa piztu eta niretzat benetan erabilgarria izango zen gai baten inguruan egin nahi nuela. Hori horrela, azken urteetan gure herrian ematen ari zen arazo bat etorri zitzaidan burura, hau da, euskal pilota eta batez ere esku pilotaren gainbehera Antzuolan. Hori horrela, klubeko kide batekin egon nintzen momentu horretan zegoen egoeraren berri izateko eta arazoa benetan nolako zen ideia bat izateko.

Behin hau eginda, unibertsitatean gure gaia aukeratzeko eguna iritsi zen. Gaia aukeratu ondoren, zuzendari bezala laguntzeko irakasle bat egokitu zitzaigun eta berarekin hitzordua hartu eta buruan neukan ideia azaldu nion: nire lana Antzuolan zegoen egoera horren inguruan egin nahi nuen, eta hobeto esanda, egoeraren diagnosi bat egitea nahi nuen ondoren bultzada bat emateko asmotan.

Berarekin hizketaldi hau eduki ondoren, berak ideia polita, baina, aldi berean lan zail eta interesgarria zela aipatu zidan. Hori horrela, beste bilera batzuk egin ondoren, lanaren nondik norakoak finkatu eta lanarekin hasteko aukera izan nuen.

Bertan, lehenengo pilotaren “makro” egoera aztertzea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun, hau da, modu global batean, Gipuzkoa mailan pilotaren egoera nolakoa zen ulertzea. Behin hau ikusita, poliki- poliki nire herriko egoera aztertzerik pasa beharra izango nuela ikusi genuen; eta horretarako, beharrezkoa izango zela eskola kirolak zuen eragina aztertzea.

Hori horrela eta behin herriko egoera aztertuta (kluba, adierazleak, udala...), egoeraren diagnosa burutu genuen. Baina, nire lana ez zen bertan amaituko, izan ere, gure asmo nagusia, egoera honi buelta ematen saiatzea izan da hasieratik.

Ondorioz, hurrengo pausua pilotaren egoeraren aldaketa ematea izango zela erabaki genuen, honela, zati praktikoari norabidea emanaz. Horretarako, testuingurua ulertzea eta aztertzea beharrezkoa zen, ondoren hauen ondorioak ateratzeko. Beraz, modu honetan lehenengo zatiaren helburua finkatuta geratu zen.

Behin diagnosiaren zatia amaituta, esku hartzea egiten hastea besterik ez zen gelditzen. Horretarako, AMIA matrizearen ondorioz ateratako ondorio eta arazoak izendatu eta arazo horiek sailkatzea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun. Horretarako, autore desberdinek erabiltzen zituzten tekniken inguruan irakurri eta hauetatik batek genituen beharrei erantzuten ziela ikusi genuen. Hau egin ondoren, eta arazo desberdinak bata bestearen atzetik sailkatu ondoren, sailkapenaren arabera lehentasunak hartu eta irtenbidea emateko plan, programa eta proiektu zehatz batzuk egiten hastea besterik ez zen gelditzen.

Azkenik, proiektu hauek fitxa batzuetan islatu nituen, deskribapen fitxa batzuk bezala. Hauei esker, etorkizunean gai honen inguruan lan egitea egokitzen bada, lan egin behar duen erakunde edo pertsona horrek ez du hutsetik hasi beharrik izango. Hau da, abiapuntu bat izango dira fitxa hauek eta gero beraien beharren arabera, fitxa hauek moldatu edo erabiltzeko aukera izango dute.

Hori horrela, lan hau abiapuntu bezala hartuko genuke etorkizun batean euskal pilota indartzeko, horrela abiapuntu honetatik hasita, euskal pilotaren egoera hobetzea izango litzateke asmoa Antzuolan.

EDUKI TEORIKOAK

2. METODOLOGIA

Lanaren lehenengo pausoa, inguruaren azterketa bat egitea izango da, planifikazio prozesuaren aplikazioa ez baita elkarte, enpresa, pertsona... guztientzako berbera izan behar. Erakunde bakoitza desberdina da eta horregatik kasu bakoitzerako modelo egokiena aukeratzea beharrezkoa izango da(Mestre, 2004).


Proiektu esanguratsuek kudeaketa arloan asko erabiltzen den kalitateko metodo bat erabiltzen dute, hau da, PDCA (Plan, Do, Check, Act). PDCA edo Deming-en gurpila, administrazioa arloan etengabeko hobekuntza lortzeko metodoa dugu eta Walter A. Swewhart-ek sortutako metodologia batetik eratutakoa da(Deming, 2002).

Hori horrela, proiektu honetan kirol kudeaketako oinarrizko estrukturatik eratorritako metodologia erabiliko da (Mestre, 2004). Metodologia honen bidez, lan egiteko pausu desberdin hauek jarraitu ohi dira:

- Beharrak identifikatu
- Diagnostika egin
- Garapena gauzatu
- Exekuzioa egin
- Kontrola ezarri

Lehenengo pausoa arazoa identifikatzea izaten da. Behin hau identifikatuta dagoenean, egoera horren diagnosi edo azterketa sakon bat egin beharra dago. Hau egin ondoren arazoak ikusi eta hauen antolaketa burutzen da. Azkenik, plan, programa eta proiektuen bidez exekuzioa burutu eta amaitzeko kontrol bat egiten da azken emaitza ikusteko. Ondoren, zikloa berriro hasiko litzateke beharrezkoa izanez gero (Mestre, 2004).

Ondoko taulan, prozesu hau laburbilduta ikusteko aukera dago.



Irudia 1: Prozesuaren irudi grafiko (Mestre, 2004)

Eskema honen ideiak jarraituz, diagnosi fasearen azkeneko pausoa AMIA matrizea osatzea izango da. Honekin, ateratzen diren arazo horiek definitu eta garrantziaren arabera sailkatuko dira sistema egokitua erabiliz. Azkenik, plan – programa- proiektuak erabiliko dira arazo hauei irtenbidea emateko (Mestre,2004).

Behin prozesu hau burututa, proiektu bakoitza martxan jarri eta kontrol zehatz bat eramaten da, bere garapena ebaluatuz. Azkenik, proiektu bakoitzari ezarri zaion helburua hartu eta emaitzekin konparatzen da (Mestre, 2004).

3. DIAGNOSI FASEA, INGURUAREN AZTERKETA

Diagnosiaren hasiera puntu bezala, beharrezkoa da Antzuola herriko kirola inguratzen duenaren inguruko azterketa egitea. Hori horrela, hurrengo lerroetan Antzuolako pilotaren inguruan eragina duten agente desberdinen azterketa egingo da. Azterketa hau, herritik urrutien dagoen elkarte edo pertsona juridikotik hasi eta herrian bertan elkartera egingo da. Hots, era global batetik hasi eta herrian dagoen egoera espezifikora. Hori horrela, lehenengo Gipuzkoako pilota federazioaren inguruko azterketa bat egingo dugu, ondoren, Eskola Kirola aztertuko dugu Gipuzkoa mailan eta herri mailan eta azkenik herriko pilota kluba.

3.1. GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA

Herriko pilota aztertzen hasteko, ezinbestekoa da Gipuzkoako pilota federazioa aztertzea. Izan ere, Gipuzkoa osoko pilotaren arduraduna bera dugu, ondorioz gure herriko pilotan ere eragin handia duela argi ikusten da. Hori horrela, ondorengo lerroetan Gipuzkoako pilota federazioaren nondik norakoak azalduko dira.

3.1.1. Xedea eta ikuspegia

XEDEA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoan euskal pilotaren praktika sustatu, bultzatu, baimendu eta antolatzea da. Berarien jarduera esparruak kirol federatua, eskola kirola eta jolas kirola dira(Gipuzkoako euskal pilota federazioa, 2016).

IKUSPEGIA


Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren nahia Euskal Herriko Kirol Federazioen artean erreferente izatea da, hala euskara sustatzeko ahaleginean, nola ondorengo ataletan(Gipuzkoako euskal pilota federazioa, 2016):

- Barne antolaketa
- Maila guztietako federatuen arteko txapelketen antolaketa
- Emakumeen parte-hartzearen sustapena
- Jolas helburuko pilotaren sustapena

3.1.2. Antolaketa

Gipuzkoako Pilota federazioa, Euskal Herrikoaren barnean sartuta dago. Hau da, Gipuzkoako federazioak ez du erabateko eskumenik, izan ere, berak baino eskumen handiagoko beste erakunde bat dago, hots, Euskal Herriko pilota federazioa. Behin hau aipatuta, Gipuzkoako federazioaren antolaketa hau da:

Taula 1: Gipuzkoako federazioaren organigrama (Gipuzkoako federazioa, 2016)



3.1.3. Planak

J.C. Etxeberriak 2016ko otsailaren 15ean komunikazio pertsonal bidez azaldu zuen bezala, Gipuzkoako federazioak hainbat plan ditu gaur egun pilota bere lurraldean indartzeko, hori horrela, euren asmoa pilotak indarra hartzea da, azken urteetan galdu duen indar hori berriro berreskuratuz.

Helburu honen atzetik, gaur egun indarrean dauden planak honako hauek ditugu:

- Komunikazio plana: Horretarako azken urte hauetan euren APP-a, web gunea eta sare sozialetako orri desberdinak ireki eta aktibo mantentzen dituzte.
- Emakumea pilotari: emakumeek pilota munduan duten parte hartzea sustatzeko asmoz. Hiru alor desberdinetan lan egiten da:
 - o Eskola kirola
 - o Aisiko kirola
 - o Kirol federatua
- Pilota egokitua indartzeko plana: Plan honi esker, pilota egokitan jolasteko araudia egokitu zen lehenbizi, ondoren material egokiak eskuratu zituzten eta azkenik txapelketak antolatzen hasi ziren eta gaur egun indarrean daude txapelketa hauek.
- Teknikazio proiektua: Proiektu honetan, Infantil, kadete eta jubenil mailako pilotari batzuk aukeratzeko dira entrenamendu espezifikoak egiteko.
- Jokamolde gutxiak indartzeko proiektua: Proiektu honen bidez, gure herrialdean eta pilotaren barnean garrantzitsuak izanik indar gutxi duten jokamoldeak indartzea lortu nahi da.
- Sustapen plana: Plan honek gaur egungo klubei berrantolaketa bat egiteko aukera eskaintzen die.

Orain arte, federazioaren eginkizun bakarra txapelketak antolatu eta pilota ahal zuten heinean indartzea zen eta udal eta diputazioaren zeregin nagusia klub eta elkarteei diruz laguntzea. Hala ere, orain dela urte batzuk, federazioak klub batzuen arazo larriak ikusita proiektu bat antolatu zuen. Bertan, federazioak klub batzuk aukeratu zituen eta ondoren hainbat pautak jarraituz klub hauei laguntzen hasi zen. Baina, denbora aurrera joan zein heinena, hasiera batean izan zuen arrakasta handia galdu eta klub ia guztiek proiektua uztea erabaki zuten.

Urteak pasa eta berriro ere arazo berberekin aurkitu dira, hots, klubaren egoera oso larria dela, beraz, "Klub Proiektua" izeneko txantilo bat sortu dute klubaren berrantolaketan laguntzeko eta nahi duen klubak proiektuan izena eman eta poliki- poliki berrantolaketa burutzeko.

Pilotak ondo funtzionatzeko, oinarrian hiru eragilea nagusi daude: Lehenengo eta garrantzitsuenak kluba bera izango da, izan ere, klubik ez badago herri horretan pilota talderik ere ez da egongo. Bigarrena, udala izango da. Izan ere, udalaren laguntza egonez gero asko errazten da klub baten lana. Azkenik, hirugarren eragilea eskola izango da, izan ere, eskolan bertan hasten da haur bat hazten eta beharrezkoa ikusten da hazkuntza prozesu honetan euskal pilota sartze.

Amaitzeko, aipatu beharra dago proiektu hau, hiru zatitan banatuta dagoela: Zati filosofikoa, non, klubaren helburuak eta azalduko diren; antolaketaren zatia, non, klubaren antolaketa nolakoa izango den aipatuko den eta kirol zatia, non, kirol arloari buruzko informazio guztiak idatzita geratuko den.

Behin klubak berrantolaketa burutu duenean, udalera zein ikastetxera joan beharko du bere proiektu hori aurkeztera. Horretarako lehenengo udalera joan behar da eta bertan udalaren babes ekonomikoa lortzeko. Ondoren berriz ikastetxera. Helburua pilota diseinu kurrikularraren barrenean sartzea izango zen, horretarako klubak erraminta guztiak (unitate didaktikoa, materiala, teknikariak) eskainiz. Bestetik, oso garrantzitsua da baita, pilota eskola orduz kanpoko eskaintzan sartzea.


3.1.4. Lizentziak

Ikus daiteke lizentzien gora beherak Gipuzkoa mailan ere badaudela azken urte hauetan. Hala ere, kasu honetan azken hamar urteotan ez da lizentzia kopuruan jaitsiera handirik eman. Hau da, 81 lizentzia gutxiago daude gaur egun orain dela hamar urte baino, hau da, %5,66 gutxiago.

Taula 2: Federatu kopurua adin tarte bakoitzean (Gipuzkoako federazioa, 2016)

DENBORALDIA	KATEGORIA						GUZTIRA
	ALEBINA	INFANTILA	KADETEA	JUBENILA	22 AZPITIK	NAGUSIA	
2005/06		233	253	182	163	600	1431
2006/07		269	234	207	167	621	1498
2007/08		262	238	197	171	652	1520
2008/09		252	250	215	184	659	1560
2009/10		226	228	210	195	655	1514
2010/11		215	226	196	183	629	1449
2011/12	91	199	242	184	184	628	1528
2012/13	128	203	225	177	184	614	1531
2013/14	94	237	185	183	163	600	1462
2014/15	115	229	185	163	141	517	1350

Honekin jarraituz, beste datu garrantzitsu bat Gipuzkoa mailan dauden pilota entrenatzaileen profila ikustea da. Hau da, Gipuzkoako klub desberdinetan entrenatzen ari diren entrenatzaileen profilak ikusita, arloan ematen den profesionaltasuna txikia dela ikus daiteke. Izan ere, gehienak pilotari afizionatuak ari dira entrenatzaile lanetan eta oso gutxi dira lizentziatuak edo antzeko ikasketak dituztenak.



Irudia 2: Entrenatzaileen kualifikazio gipuzkoan (Xabide kultur kudeaketa eta komunikazioa, 2006)

3.2. ESKOLA KIROLA GIPUZKOAN

Behin Gipuzkoako pilota federazioa aztertuta, bigarren pausoa Gipuzkoako eskola kirolek hasi eta poliki- poliki herri mailako eskola kirola aztertzea izango da. Horretarako, beharrezkoa da eskola kirolaren sarrera bat egitea, eskola kirolaren nondik norakoak ulertzeko.

Eskola kirola eskola-umeen heziketa integratzaileari begira, hauen nortasuna era harmoniatsuan garatzeari begira eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea bermatuko duen baldintza fisiko eta prestakuntzari begira dagoen sistema da(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).


Gipuzkoako Foru Aldundiak indarren jartzen du, Euskadiko kirolaren 14/1998 Legeak eta eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak ezartzen dutenaren arabera, beti ere Gipuzkoako ikastetxe, udal, kirol federazio eta klubekin elkarlanean(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).

Eskola kirola programak, Gipuzkoako ikasle guztiak kirola egiten hastea du helburu. Kirol prestakuntza epe luzeko prozesu gisa lantzen da ikasle guztiei kirol anitz probatzeko aukera eskainiz.

Hori horrela, azken urte hauetako partaidetza honako hau dela ikus genezake:

Taula 3: Azken urteetako eskola kiroleko partaidetza (Gipuzkoako foru aldundia,2016)

URTEA	04/05	05/06	06/07	07/08	08/09	09/10	10/11	11/12	12/13	13/14
PARTAIDE KOPURUA	72.345	72.613	74.382	79.550	76.338	117.086	121.080	-	125.189	84.487



Irudia 3: Azken urteetako eskola kiroleko partaidetza (Gipuzkoako foru aldundia,2016)

Kirol jardueri dagokienez, jarduera programen eskaintza urtero egokitzen saiatzen da. Horrela, jomuga bakarra lehiaketarena izan gabe, kirol askotan aritzeko aukera ematen zaie Gipuzkoako ikasleei. Helburu horretan, programako alderdi teknikoez arduratzen diren Gipuzkoako kirol federazioekin batera erabakitzen da, alde batetik, adin talde edo kategoria bakoitzean zein jarduera mota egin, eta bestetik, txapelketak zien irizpideren arabera antolatu(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).

Honekin jarraituz, udalen parte hartzeari esker bigarren mailako egitura batzuk sortu dira lan honetan laguntzeko: Eskola kiroleko herri elkarteak dira, eta horietan parte hartzen dute ikastetxeetako ordezkariak, udaletako kirol teknikariak eta, zenbait gaitan, eskola kirolaren garapenean parte hartzen duten hainbat klubek(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).

Elkarte horiek erabakitzen dute nola antolatu eta egokitu euren eskualdeko edo herriko ezaugarrietara Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako urteko plana. Hala ere, eskualdeen artean ematen ziren desberdintasunak ikusita, Eusko Jaurlaritzak, 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua onartu zuen, desberdintasun hauek bertan behera geratu ziren. Modu honetan, dekretuak derrigorrezko ekintzak finkatzen ditu eta honekin batera adin tarteei dagozkien legedia guztia. Horrela, desberdintasunak gutxitu eta guztiek antzerako eskola kirola gauzatzea bultzatzen da, nahiz eta, leku bakoitzean beraien inguruneari dagozkien jarduera desberdinak sartzan diren programan(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).

Eskola kirolaren barnean ere lehiaketak egon badaude, bi lehiaketa mota bereiz daitezke larrik. Alde batetik, barne lehiaketak. Lehiaketa hauen helburua ez da lehia bultzatzea, baizik eta, ikasleen artean kirola sustatzea. Benjamin mailatik kadete mailara arte luzatzen da. Beste aldetik, kanpo lehiaketak ditugu. Lehiaketa hauetan, benjamin eta alebin mailako gazteek kirol aniztasuna praktikatzan dute. Infantil eta kadete mailakoek berriz kirol bakarra, izan ere, adin hau kirol zehatzetan espezializatzeko adin tarte egokia dela pentsatzen baita(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).

3.2.1. Eskola kirola eta pilota gipuzkoan

Goian aipatu bezala, eskola kirolak eta pilotak zer ikusi zuzena dutela ikusten da. Gipuzkoako eskola kirolaren antolakuntzan azaldu den bezala, euskal pilota praktikatzen hasteko adina, infantil kategoria izango da, ordurarte haurrek kirol anitzak praktikatuko dituztelarik. Hala ere, teknifikazio jarduerak medio, ikasle batzuek urte bat edo bi lehenago ere hasi daitezke, baina, hori aurrera eramateko klubek hainbat baldintza bete beharko dituzte(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016):

- Beren taldekideak matrikulatuta dauden ikastetxeei jakinaraztea.
- Gipuzkoako federazioren baten kide izatea.
- Teknikariak tituludunak izatea.
- Kategoria guztietan talde edo bikoteak izatea
- Jarduera eskola kiroleko araudiari egokituta egotea.


Euskal pilotari dagokionez, benjamin mailan hasten dira euskal pilotaren hastapen jardunaldiak. Jardunaldi hauei dagokienez, gutxienez sei topaketa egin behar dituztela adierazten da. Aldiz, kategoria bat igotzen denean, jardunaldi kopurua txikitzen doa eta alebin mailan eta infantil mailan gutxienez bi bakarrik egin behar direla adierazten da. Hori horrela, adin hauetatik aurrera, pilotan zein beste talde kirol batzuetan, futbola eta saskibaloia adibidez, fitxa federatuak egiten hasten dira(Eskola kirola, kirola zerbitzua, 2016).

Gipuzkoako eskola kiroleko datuak hartuta, joera hau argi ikusten da azken urte hauetan, euskal pilota osatzen duten modalitate desberdinak praktikatzen dituzten haur kopurua txikitzen doala. Ondorengo taula eta grafikoek joera hau erakusten dute

Taula 4: Parte hartzea eskola kirolean euskal pilotako modalitateetan (Gipuzkoako Foru Aldundia,2015)

PARTE HARTZEA ESKOLA KIROLEAN EUSKAL PILOTAKO MODALITATEETAN

M \ U	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014
Eskuz	2949	3120	3332	2715	2252	1877	1883	D E A Z T U R I K	2042	2038
Paleta	60	279	257	265	215	219	189		125	361
Zesta	64	72	41	44	41	23	42		146	22
Joko Garbia	-	5	17	8	18	12	-		-	-



Irudia 4: Partaidetza modalitateetan (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015)

3.2.2. Eskola kirola eta pilota Antzuolan

Aurretik aipatu bezala, eskola kirolaren arlo jakin batzuk Eusko Jaurlaritzatik zehaztuta egoten dira eta ondoren Gipuzkoako eskola kirolean ezartzen dira. Hala ere, udalerrri bakoitzak bere eraketa berezi bat egiten du, lekuan lekuko eskola kirola sortuz. Antzuolako eskola kirolari dagokionez, ez dute herriko ikastetxeko haurrek bakarrik osatzen: eskola kirola, Bergara, Elgeta eta Antzuolako ikastetxeen artean osatuta dago (J, Larrañaga, komunikazio pertsonala. 2015, abenduak 16).

Hori horrela, Antzuolako eskola kirola ez da bakarrik herriko udalaren, eskolaren eta guraso elkartearen ardura, talde hauez gain, zer esan handia baitute Bergara eta Elgetako udal, ikastetxe eta taldeek (J, Larrañaga, komunikazio pertsonala. 2015, abenduak 16).

Herriko antolaketa dena den, guraso elkartearen esku gelditzen da, udaletxeak, eskumen osoa eskaintzen baitio guraso elkarteari. Hemen sortzen den arazo nabarmenena, gurasoen kirolarekiko eta eskola kirolaren inguruko ezagutza eza da. Ondorioz, euren eginkizun nagusia haurren banaketa eta garraioa antolatzea izaten da. Guraso elkarteko kideek Bergara eta Elgetako udalen esku uzten dute gehienbat antolaketa. Honen ondorioz, jarduera gehienak Bergaran egiten dira, topaketa gutxi batzuk kenduta, Antzuolan egiten direnak. Topaketa horiek, atletismokoak eta futbol zazpikoak izaten dira (J, Larrañaga, komunikazio pertsonala. 2015, abenduak 16).

Antzuolako haurren parte hartzea eskola kirolean >%95 da. Hau da, ia herriko haur guztiek hartzen dute parte eskola kirolean, eta horren arrazoi nagusia, guraso elkarteak haurrekin egiten duen lana dela dio Jone Larrañaga Antzuolako

udaleko kirol arduradunak. Bere esanetan, gurasoek sekulako lana egiten dute: eurak dira entrenatzaileak, garraiolariak, antolatzaileak. Euren inplikazioak, haurren inplikazioa ere handia izatea eragiten du eta Gipuzkoa mailan, parte hartze handienetarikoa duen udalerrria da.

Tamalez, parte hartze handi honek ez du eragin zuzena pilotarekin. Herriko haur gehienak eskola kirolean ari diren bitartean, futboleak ere jolasten dute Antzuolako kirol elkarteak. Ondorioz, pilotaren egoera ez da ona herrian, batez ere, azken urte hauetan futbol klubak berrantolaketa berria egin duelako eta honekin batera kaptazio kanpaina handia. Horrela, azken sei urtetan indar handia hartu duela futbolariek herrian partaide kopuruari eta ikuslegoari erreparatuz gero.

Hala ere, guztia ez da futbola herrian eta pilota alorrean jarduteko aukera ere badago. Aukera hau, Olalde Euskal Kirolak elkarteak ematen du, non, euskal pilota sustatu eta herritarrek modalitate desberdinetan jarduteko aukera eskaintzen duen.

3.3. OLALDE EUSKAL KIROLAK ELKARTEA

Azkenik, inguruaren azterketa honekin amaitzeko, ezinbestekoa da herri mailan pilota sustatu eta praktikatzeko aukera ematen duen pertsona juridikoa aztertzea. Klub hau, Olalde Euskal Kirolak dugu eta ondorengo lerroetan klubari buruzko azterketa azaltzen da.

3.3.1. Historia

Olalde Euskal Kirolak elkarteak, 1979. urtean sortu zuten hiru Antzuolarrek. Euren asmo nagusia, pilota eta hau inguratzen zuen guztia herritarrei gerturatzea izan zen. Gaur egun garai artan pilota saila osatu zuten hiru kideek jarraitzen dute klubean lanean. Izan ere, errelebu falta handia dago eta hauek nahiz eta euren lekua jende berriari utzi nahi, inor ez dago lan hori hartzeko prest (V. Zabalo, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 22).



Kide hauen esanetan, pilota saila une oso larria jasaten ari da herrian. Izan ere, orain dela hamar urte, klubak, Gipuzkoa mailako herri arteko txapelketan parte hartzeko besteko pilotari kopurua zegoen, hau da, gutxienez hiru pilotari kadete, jubenil eta senior mailetan. Honetaz gain, pala motzean eta paletan ere bikote

bat zegoen, Gipuzkoako txapeldun izatera iritsi zirenak. Orduetik aurrera, poliki-poliki pilotak indarra galtzen joan dela adierazi dute. Hots, gazteek pilota utzi eta beste kirol batzuetara joateko joera dutela eta honen ondorioz, pilotan jarraitzen duten oso pilotari gutxi daudela. Horren isla da, gaur egun dagoen pilotaririk nagusiena kadete mailako pilotari bat dela ere adierazi dute. Gainera, bera bakarrik dagoenez, ezin du txapelketetan parte hartu(V. Zabalo, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 22).

Argi dago, bertako kideek sekulako lana egin eta egiten dutela gaur egun. Izan ere, azken urteotan hainbat pilotari profesional atera dira klub honetatik, eta beste batzuk profesionalismoaren atarian geratu dira. Profesionaletara iritsi diren pilotarien artean, Aritz Berraondo eta gaur egun profesionala den Aitor Mendizabal (Mendizabal III) ditugu(V. Zabalo, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 22).

3.3.2. Klubaren helburuak


Helburuei dagokienez, klubak hasierako baloreak mantentzen ditu, hori esker, helburuak hauek ditu:

- Euskal pilotaren ezagutza eta praktika sustatzea, euskal kultura eta historiaren ondare den aldetik.
- Herri mailan pilota sustatzea, herriko haur, gazte, zein helduek euskal pilotako jokamolde ezberdinetan jokatzeko aukera izatea.
- Euskal pilotako jokamolde ezberdinen inguruan lan egitea, beraien ezagutzaz eta zabalpenaz haratago, herritarrak modalitate hauetara hurbiltzea.
- Euskal pilota herrian kirol erreferente bat izatea, herritar guztiek klubaren berri izatea eta arlo ezberdinetan presentzia izatea.
- Pilotaren bidez jarduera fisikoa egitea, bizi ohitura egokiak hartzea eta osasunaren ikuspegia lantzea.
- Ikuspegi hezitzaile eta formatzaile batetik, pertsonen heziketan lan egitea eta kirolak dituen balore egokiak sustatzea.
- Pertsonen garapen integrala helburu izatea, garapen fisiko, motor, afektibo eta soziala.
- Emakumeen pilota sustatzea, emakumeak euskal pilotan duen presentzia handitzea eta kirolean emakumeak izan ditzakeen zailtasunak gainditzea.

- Ezintasun desberdinak dituzten pertsonak pilotara hurbiltzea, beraiek ere jolasteko aukera izan dezaten moldaketa eta egokitzapenak eginez.
- Kirol arloan errendimendu bidea hartu nahi dutenei aukera ematea, lehiaketetan parte hartzeaz gain maila goreneko entrenamenduak ematea, beraien garapen fisiko, tekniko eta taktikoan laguntzea.
- Aisialdiko pilota eskaintzea, lehiaz haratago pilota egin nahi duen edonori pilotan egiteko aukera ematea.

3.3.3. Klubaren antolaketa

3.3.3.1. Organigrama



5. Irudia Olalde Euskal Kirolakeko organigrama (Olalde, 2016)


Klubaren organo gorena Batzar Nagusia da. Batzar Nagusia klubeko bazkide guztiek osatzen dute, librea delarik bazkide egitea. Batzar Nagusiaren azpitik Zuzendaritza Batzordea dago, Batzar Nagusiko erabakiak aurrera eramango dituen organo betearazlea eta kide zehatzek osatutakoa.

Ondoren bi arlotan banatuko da organigrama, administrazio arloa eta arlo teknikoa. Administrazio arloan funtzio ezberdinak aurrera eramango dira, ordezkari ezberdinek eguneroko lan administratiboak eta zuzendaritzak finkaturiko ardurak aurrera eramango dituzte. Kirol arloan berriz, kirolaren atal guztia eramango da aurrera, horien artean entrenamenduen antolaketa.


3.3.3.2. Entrenamenduen antolaketa

Entrenamenduei dagokienez, kadete eta infantil mailako pilotariak, astean hiru entrenamendu egiten dituzte: astelehenetan 19.00-20.00 fisikoa lantzeko entrenamendu espezifikoa bat izaten dute. Ondoren, astearte eta ostegunetan (19.00-20.30) teknika eta taktika lantzeko entrenamendua. Entrenamendu hauek, hiru entrenatzaileen eskuetan geratzen dira eta entrenatzaile hauen artean elkarlan bat dagoela ikus daiteke. Hala ere, ez dira teknikariak eta nahiz eta haien artean elkarlana egokia izan ez dira kirola eta jarduera fisikoaren inguruan ikasitakoak ere (A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

Aurretik aipatutako datuak ikusita, herri mailan ez da ematen Gipuzkoa mailan ematen den teknikari kualifikatu minimo horien maila (A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).



Irudia 6: Entrenatzaileen kualifikazioa (Olalde, 2016)



Irudia 7: Entrenatzaileen kualifikazioa (Xabide kultur kudeaketa eta komunikazioa, 2006)

Haur txikien entrenamenduetan gurasoak aritzen dira entrenatzaile bezala. Guraso hauek, euren intenzio onenarekin jarduten dute klubari laguntzeko asmotan. Antolaketa mota hau, klubaren sorreratik ematen den antolaketa da, baina, gaur egungo egoera eta beharrak aldatzen doazen heinean, antolaketa ere aldatu beharra dago. (A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

Entrenamendu hauek, astearte eta ostegunetan izaten dira, 18.00tatik- 19.00 etara. Hala ere, astero ez dira aurrera eramaten. Hau da, guraso hauen lanaren arabera aste batzuetan entrenamendu hauek egongo dira eta beste aste batzuetan ez(A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

3.3.3.3. Pilotarien antolaketa

Klubaren barnean, pilotarien banaketa adinaren arabera egiten da. Hau da, ondoren txapelketetan parte hartu behar duten mailaren arabera. Klubeko pilotarien gaur egungo antolaketa horrelako da(A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25):

- Benjaminak: } 30 ume guztira
- Alebinak: }
- Infantilak: 2
- Kadeteak: 1

3.3.4. Lizentziak

Klubean eman den bilakaera federatiboa oso nabaria izan da azken hamar urteotan. Gaur egun, lizentziei begiratzen badiegu, klubean dagoen pilotaririk nagusia kadete mailan dago. Ondoren, infantil errendimenduan beste bi pilotari daude eta hortik behera eskolarra dira guztiak.

Bestetik, aipatu beharra dago gaur egun arte dokumentu hauek ez dituztela gorde izan, beraz, datu hauek ahoz- ahoz pasatu dizkirate bertako kideek.

Taula 6: Olaldeko federatu kopurua azken hamar urteetan (Olalde, 2016)

	Eskolarra		Federatua		
	Parte hartzea	Errendimendua	Kadeteak	Jubenila	Nagusia
2015-2016	30	2	1	1	0
2014-2015	35	4	1	0	5
2013-2014	30	4	1	0	5
2012-2013	25	5	0	0	5
2011-2012	25	2	0	0	5

2010-2011	25	1	0	0	5
2009-2010	26	0	0	0	5
2008-2009	20	0	0	0	5
2007-2008	22	4	0	0	5
2006-2007	25	6	2	2	8
2005-2006	24	6	2	2	8

Taula honetan oso argi ikusten da azken sei urteetan eman den lizentzia eta haur kopuruaren bilakaera. Bertan, eskolar asko daudela ikus daiteke baina, eskolarretatik federatu mailara pasatzea tokatzen den momentuan, haur gehienek pilota utzi eta herrian eskaintzen diren beste jarduera batzuk egitera pasatzen dira. Honetaz gain, argi ikus daiteke, azken urteetan nagusien mailan pala jokamoldeak nahiko indar izan duela bost pilotarirekin. Hala ere, aurtengo denboraldian pilotari hauek utzi eta pala sailaren desagerpena eman da.

3.3.5. Klubaren planak

Gaur egun, klubaren egoera larria dela medio, kluba Gipuzkoako pilota federazioarekin elkarlanean ari dira. Hori horrela, gaur egun Gipuzkoako federazioarekin Klub Proiektua lantzen ari dira(A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

3.3.6. Klubaren laguntzak

Klubak diru laguntzak jasotzen ditu Antzuolako Udaletik. Horretarako, urteko memoria bat aurkeztu beharra izaten dute klubek (federatu kopuruak, ekitaldi kopurua, gastuak, sarrerak...). Horren arabera, puntuaketa bat ematen zaio klubari eta puntuaketa horren arabera diru kantitate zehatz bat(A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

Honetaz gain, beste bi diru laguntza jasotzen ditu federazio eta Foru Aldunditik, hau da, klub guztiei ematen zaion diru laguntza. Azkenik, bazkideen kuotetatik ere diru sarrera txiki bat lortzen da. Hala ere, inbertsore eta erakunde pribatuen laguntza ekonomikorik ez dute(A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

Gaur egun, klub honetan beste batzuetan ez bezala kirolariek ez dutela inongo kuotarik ordaintzen, hala ere, egoera hau klubaren egoeraren arabera aldatu egin daiteke. Beraz, gaur egun edozeinek jarduteko aukera du, bere egoera

ekonomikoa inongo oztopo izan gabe(A. Balerdi, komunikazio pertsonala.2016, otsailak 25).

3.4. HAUSNARKETA ETA ONDORIOAK

Puntu honetara iritsita, beharrezkoa da hausnarketa sakon bat egitea dagoen egoera honen inguruko iritzi eta datuak ateratzeko. Argi geratu dena da, Antzuolan dagoen egoera euskal pilotaren inguruan ez dela batere ona.

Horretaz gain, eskola kiroleko zein Gipuzkoako federazioko datuak ikusten baditugu, tendentzia hau mantendu egiten dela esan daiteke. Hala ere, Gipuzkoa mailan ematen den beherakada hori ez da Antzuolan ematen denaren baliokidea izango. Hau da, 2005ean 1431 lizentzia zeuden, berriz gaur egun 1350, hots, % 5,66 gutxiago. Aldiz, herri mailan jaitsiera hori handiagoa da %19raino helduz. Horren ondorioz, herrian bertan egin beharko den indarra handiago izango da. Hala ere, kluba ezin izango da bakarrik joan. Baizik eta, eskutik helduta joan beharko da beste erakunde batzuekin, hots, udala, ikastetxea eta federazioekin besteak beste.

Egia da, herri txikia izanik, adin bakoitzean egoten diren pilotari kopurua ezin dela handiegia izan. Baina, klubeko datuak aztertzen baditugu, bertan argi eta garbi ikusten da eskola kiroleko garaian, hau da, lehen hezkuntza mutiko asko eta neska bakarra dagoela pilota praktikatzeko duena. Hala ere, kategoriak aldatzen doazen heinean, pilotari kopurua txikitzen doa modu esponentzial batean, azkenean 2-3 pilotari bakarrik egon arte kadete eta gazte mailetan. Hori horrela, bi ondorio nagusi atera daitezke.

Batetik, herrian pilotaz gain talde kirolak lantzen diren beste klub bat dagoela, non, indar handia duen herriko gazteengan edo bestela, klubean nahiz federazioan zerbait egitea komeni dela adin tarte horietan. Adibidez, infantil mailan materialaren aldaketa nabaria ematen da (pilota goxotik, pilota gogorrera), ondorioz, baliteke material aldaketa honek haurrak beldurtzea eta pilota usteratzea.

Honez gain, klubaren antolaketaren inguruan ere aldaketak ematen hastekoak direla ere aipatu dut, izan ere ez dute antolaketa zehatz bat entrenamendu eta teknikoei dagokionez. Hots, bertan diharduten tekniko guztiak bolondresak dira.

Ez dago arlo honetan profesionalik ez titulaturik, ondorioz, formakuntza espezializatua komenigarria izango litzake. Honekin jarraituz, entrenamenduen antolaketa hobetzeko aukera handia dagoela ere ikus daiteke. Izan ere, entrenamenduak ez dira planifikazio batekin antolatzen, gainera, helburuen arabeko urteko plangintza ere ez da aurrera eramaten. Honek ekartzen duena da, astero entrenamendu mota berdinak egitea eta haur zein gazteek ez dituzte euren adinei egokitzen zaizkien aldiak behar bezala ez betetzea. Honek ekar dezake, teknikoki arazoak dituzten haurrak alde batera uztea, hauek, beranduago pilota uztea erabakitzen duten. Teknikoki arazorik ez dituztenek normalean, beste kirol batzuetan ere trebeak izaten direnez, batzuek jarraitu egiten dute eta beste batzuek berriz utzi.

EDUKI

PRAKTIKOA

4. HELBURUAK

Behin zati teorikoan beharrezkoa den informazioa jasota, orain zati praktikoari ekitea egokitzen da. Horretarako, lehenengo eta behin zein helburu izango dituen adierazi beharra dago.

Helburu nagusia:

- Antzuolako euskal pilotaren egoera hobetzeko euskarriak ezartzea.

Azpi helburuak:

- Plan, programa eta proiektu desberdinak sortzea.
- Batez ere, klubaren arazoak identifikatu eta irtenbideak eskaintzea.
- Honez gain, Eskola Kiroleko eta Federazioko eragile desberdinek nola eragiten duten ikusi eta egoera hobetzen saiatzea.
- Arazoak garrantziaren arabera sailkatzea.

5. AMIA MATRIZEA

AMIA matrizeak ahalbidetzen du estrategia edo plan baten bidez, erakunde baten barne arazo eta aukera, eta kanpo arazo eta aukeren arteko nolabaiteko oreka bat lortzea (Thompson y Strikland, 1998).

Hori horrela, AMIA matrizea marketinean erabiltzen den tresna bat dela esan beharra dago, hau da, non gauden eta etorkizunean non egon nahi dugun jakiteko. Zeregin honetan eragina duten oraingo barne eta kanpo faktoreak ezagutzeko aukera ematen du. Erakundearen negozio-erabaki estrategiko, taktiko eta operazional guztien giltzarria da (EHU/UPV, 2015).

Matrize honen helburua, aurrerazko plangintza aukerak sortzeko, kanpo eta barruko informazio garrantzitsuenean oinarrituta, barne eta kanpo inguruak modu estrategikoan lerrokatzea izango da (EHU/UPV, 2015).

5.1. ERAKUNDE BAKOITZAREN AMIA:

Hau guztia esanda, ondorengo lerroetan hiru AMIA matrize ikusteko aukera egongo da, lehenengoa Gipuzkoako pilota federazioarena, bigarrena berriz Eskola Kirolaren ingurukoa eta hirugarrena Olalde Euskal Kirolarena. Hori horrela, hauetako bakoitzean arazo , ahulezia, indar eta aukera desberdinak azalduko dira, non, beranduago sailkapena egingo den.

5.1.1. Gipuzkoako pilota federazioaren amia:

	Aspektu positiboak	Aspektu negatiboak
Barnekoak	<p>Indarrak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Antolaketa egokia, federazioan dauden zereginak ondo banatuta. -Profesionalizatu dago eta honi esker bertan bakarrik lan egiten duten langileak daude -Pilota indartzeko plan desberdinak indarrean jartzen ari dira. -Elkarteekin duten harremana handitzen doa. 	<p>Ahuleziak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ez dute pilotaren antolaketaren kontrol guztia Gipuzkoan. Euskal Herriko federazioa euren gainetik dago. -Federatu kopurua gero eta txikiagoa da. -Pilota aldaketa goiztiarra. -Emakumeen presentzia baxua.
Kanpokoak	<p>Aukerak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Babesle pribatu gehiago lortzeko aukera. -Kanpora begira indarrean jartzen ari diren planek arrakasta izan dute eta izaten ari dira. -Emakumeen grina pilota munduan sartzeko. 	<p>Mehatxuak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Futbolak indar handia du Gipuzkoa mailan, ondorioz, haur asko adin batetik aurrera bertara pasatzen dira. -Oraindik enpresa batzuk krisi aurreko egoerara iritsi ez direnez diru laguntzak ematerako orduan atzera jotzen dute.

5.1.2. Antzuolako eskola kirolaren amia:

	Aspektu positiboak	Aspektu negatiboak
Barnekoak	<p>Indarrak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Haurren %95ak parte hartzen dute. -Guraso, eskola eta udalaren erabateko laguntza. -Ez da ordaindu behar. 	<p>Ahuleziak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Profesionalizazio eza. -Herriko eskola kirola ez dago Antzuolaren menpe bakarrik. Hau da, erabaki guztiak Bergara eta Elgetakoekin elkarlanean hartu beharra dute. -Eskola kirolean ez zaio behar besteko indarra ematen euskal pilotari -Lotura txikia herriko klubekin.
Kanpokoak	<p>Aukerak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Elkarteekin elkarlanean aritzeko aukera. -Foru Aldunditik laguntzak kudeaketarako. 	<p>Mehatxuak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Herri txikia denez Antzuola, adin tarte batzuetan haur kopuru oso txiki. -Especializazio goiztiarra.

5.1.3. Olalde klubaren amia:

	Aspektu positiboak	Aspektu negatiboak
Barnekoak	<p>Indarrak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Herri txikia izanik jendeak klubarekiko harreman estua du. -klub xumea izanik, hurbiltasun handia klubeko kide eta kirolarien artean nahiz, gurasoen artean. -Prezioen politika. Hau da, kirolariek ez dute kuotarik ordaintzen. -Gurasoak laguntzeko prest daude momentu guztietan. 	<p>Ahuleziak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Profesionalizazio eza. -Klub estruktura oraintxe egiten. -Barne antolaketa egoki baten falta. -Ez dago urte batzuetarako inongo antolaketa egokirik. -Urtean urteko antolaketa egiten dute. -Teknikari baten falta. -Ez dira pilota aldiak behar bezala betetzen. -Ikasketa prozesua ez da egoki ematen. -Inbertsore pribatu baten falta, ekonomikoki arazoak. -Federatu kopurua gero eta txikiagoa. -Emakumeen parte hartze txikia.

Kanpokoak	<p style="color: green; margin: 0;">Aukerak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Herrian ez dagoela beste pilota klubik. -Gipuzkoako federaziotik sekulako ahalegina egiten ari direla euskal pilota indartu eta klubei bultzada emateko plan berriak sortuz. -Emakumeen grina pilota munduan sartzeko. -Kluba inguratzen duten pertsonen iritziak entzuteko eta hobetzeko prest daude. -Babesle gehiago lortzeko aukera. Izan ere, orain ez dute batere. 	<p style="color: red; margin: 0;">Mehatxuak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Inguruko beste pilota klubek herriko haurrak euren klubetara eramaten dituzte. -Futbolak indar handia du herrian, ondorioz, haur asko adin batetik aurrera bertara pasatu. -Oraindik enpresa ugari krisian sartuta daude, diru laguntza pribatuak lortzeko zailtasunak. -Herri txikia denez Antzuola, adin tarte batzuetan haur kopuru oso txiki.
------------------	--	--

Behin arazoak identifikatu eta AMIA matrizea eginda, hurrengo pausoa arazoak bata bestearen atzetik garrantziaren arabera sailkatzea izango da. Horretarako, kudeaketa arloan oso erabilgarria den beste tresna bat erabiliko da: sistema egokitua. Gai desberdinetako galdera multzoz osatutako test-a sortzen da, eta multzo bakoitzari koefiziente bat ematen da elkartearen helburuen arabera. Hori horrela, arazoak galdeketa honetatik pasa ondoren, puntuaketa total bat lortzen da. Puntuaketa hau galdeketa sortari aurretik jarri diogun koefizientearekin biderkatzen da. Horrela, amaieran arazo bakoitzak puntuaketa bat izango du eta puntuaketa altuena duen arazoa, arazo larriena bezala identifikatuko da eta ondorengo arazoak larritasunaren arabera ordenatuko dira, puntuaketa altutik baxura.

5.2. ARAZOAK:

Identifikatu diren arazoak, hiru multzotan banatu dira: alde batetik Gipuzkoako Federazioaren ingurukoak, bestetik Eskola Kirolaren ingurukoak eta azkenik Olalde klubaren ingurukoak. Honela, arazoak haien jatorriaren arabera aztertzeko aukera izango dugu, bakoitzaren sistema egokitua egin eta sailkapena hiru multzotan banatuz.

Federazioaren inguruko arazoak:

- 1- **Antolakuntzan eskumen guztia ez dute.** Euren gainetik Euskal federazioa dagoenez ez dute Gipuzkoako eskumen totala.
- 2- **Pilota aldaketa:** Pilota goxotik gogorrera pasatzean, pilotari askok pilota uzten dute.
- 3- **Beste kirolen indarra:** Gaur egun kirol ugari praktikatzeko aukera dago, ia kirol guztietan dagoelako federazioa.
- 4- **Emakumeen presentzia baxua:** Emakume gutxi dihardute gaur egun pilotan.
- 5- **Lizentzia kopuruaren gainbehera:** Azken urteetan beherako tendentzia ematen ari da.

Eskola kirolaren inguruko arazoak:

- 1- **Antolakuntza:** profesionalizazio falta ikusten da. Honez gain, antolakuntzari dagokionez eskumen guztia ez dago herriko guraso elkartearen esku.
- 2- **Pilotari ez zaio behar besteko garrantzia ematen:**
- 3- **Lotura txikia klubekin:** Elkarlan oso txikia ematen da herrian klub eta eskola kirolaren artean.
- 4- **Espezializazio goiztiarra:** Klubek haurren espezializazio goiztiarra bultzatzen dute eta honen ondorioz eskola kirola uzten dute umeei.
- 5- **Haur kopuru txikia herrian:** Herri txikia izanik, haur kopuru txikia dago adin tarte bakoitzean.

Olalde klubaren inguruko arazoak:

Proiektu honetan pilota sustatuko da urtean txapelketa eta asteburuetako topaketa eginez. Hori horrela, urtean bi hilabeteko hiru txapelketa egitea espero da adinaren arabera eta mailaren arabera banatuta herri desberdinetan. Txapelketa hauek, pilota goxoarekin izango dira. Azkenik,

urtean beste bi topaketa egitea ere asmoa izango litzake. Bata, denboraldi hasiera, eta beste amaieran. Amaierakoan, denboraldiaren amaiera jaia ere aurrera eramango zen.

ZER ESPERO DA?

Pilotari federatuez gain, pilota gustuko duten beste pertsonak ere jokatzeko aukera izatea urtean zehar euren mailak garrantzirik izan gabe.

PROIEKTUA: Inklusibitatea pilotarekin proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Gipuzkoako pilota federazioak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Jarduera fisikoa eta pilota.

HITZ GAKOAK: Inklusibitatea.

HELBURUAK:

- Urritasun desberdinak dituzten pertsonak pilota hurbiltzea.
- Urritasun desberdinak dituzten pertsonak pilotan jolastea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan federazioak bi bide hartzea izango zen asmoa. Alde batetik, urritasun desberdinak dituzten pertsonak klubetara gerturatzen badira pilotan jolastera ba hauei laguntzeko esku liburu bat idaztea eta edozein gauzetarako euren laguntza eskaintzea.

Bestetik, urteko edo denbora zehatz batzuetako txapelketak antolatzea urritasunak dituzten pertsonentzako eta nahi izanez gero ez dituztenek be parte hartzeko aukera izango dute, beti ere baldintza berberetan.

ZER ESPERO DA?

Pilotari kopurua handitzea eta inklusibitatea lortzea.

PROIEKTUA: Bazkide berrien proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Gipuzkoako pilota federazioak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Bazkide berriak.

HELBURUAK:

- Bazkide berriak lortzea.

DESKRIBAPENA:

Bazkide berriak lortzeko asmotan hiru kanpaina antolatuko dituzte. Bata hasiera, bestea gabonetan eta azkena maiatzean. Modu honetan bazkideak lortzea izango da helburu. Gainera, proiektu honetan afizionatu txartelaren sorrera ematea nahiko da. Hau da, balio zehatz bat duen txartela izango da, non, aseguru mediku bat eskaintzen dizun pilotan jolasten ari zaren bitartean eta txartel hau lortzeko, beharrezkoa izango da bazkide egitea.

ZER ESPERO DA?

Bazkide kopurua handitzea etorkizunean.

PROIEKTUA: Fidelizazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Gipuzkoako pilota federazioak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Fidelizazioa.

HELBURUAK:

- Bazkideak eta pilotariak mantentzea.

DESKRIBAPENA:

Dauden bazkide eta pilotariak mantentzea izango du helburu. Horretarako, urte amaieran bazkideen arteko jaia egitea da proposamen honen funtsa. Honez gain, urteak aurrera joan ahala eta bertako bazkide edo pilotari bazara, fitxa edo eta bazkide kuotan beherapenak izango dituzte.

ZER ESPERO DA?

Bazkide kopurua mantentzea.

PROIEKTUA: Zabalkuntza eta sustatze proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Gipuzkoako pilota federazioak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Zabalkuntza.

HELBURUAK:

- Gipuzkoako herritar orok pilotan jokatzeko aukera izatea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honi esker, pilotaren zabalkuntza ematea da helburua. Horretarako, bailara bakoitzeko klubekin elkarlanean pilota asteburuak antolatzea izango da helburu, asteburu bakoitzean pertsona talde desberdinentzako izango dena. Honez gain, urtean behin, Euskal Autonomia Erkidego eta Nafarroatik kanpora erakustaldi bat egitea ere espero da proiektua aurrera eramanez gero.

Honez gain, Munduan ezagunak diren enprekin elkarlanean, euskal pilota munduan hedatzea da proiektu honekin egin nahi dena. Hori horrela, enpresa desberdinekin hitzarmenak lortu beharko dira.

ZER ESPERO DA?

Leku eta pertsona mota desberdinek euskal pilota ezagutu eta jolasteko aukera izatea.

PROIEKTUA: Ate ireki proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Gipuzkoako pilota federazioak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Ate irekiak.

HELBURUAK:

- Bazkide berriak lortzea.
- Jendeak federazioaren lana ezagutzea.

DESKRIBAPENA:

Denboraldi hasiera, Gipuzkoako federazioak anoetako bulegoen inguruan eta Atano III. Pilotalekua aprobetxatuz, eurek urtean egiten dutenaren inguruko informazioa eta pilotarekin lotura duten jarduerak antolatzea izango da asmoa.

ZER ESPERO DA?

Bazkide kopurua handitzea etorkizunean eta jendeak klubak egiten duena ezagutzea.

PROIEKTUA: Federazio sare proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Euskal pilota osatzen duten federazioek.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Federazio sarea.

HELBURUAK:

- Federazio arteko harremanak hobetzea.
- Lotura handiago izatea.
- Arazoen aurrean batera jokatzeko.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen helburua, harreman sare bat osatzea da euskal pilotan jokatzeko duten federazioen artean. Hori horrela, hilean edo bi hilean behin federazio guztiak elkartzea izango zen asmoa erakunde desberdinen egoitzan. Horrela, arazo edo laguntza behar izanez gero bata besteari emateko aukera izango dute.

ZER ESPERO DA?

Federazioen arteko harreman handitzea.

8.2. ESKOLA KIROLAREN INGURUKO FITXAK

PROIEKTUA: Langileak kualifikatzeko proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Antzuolako guraso elkarteak eta udalak.

ARDURADUN FISIKOA: Guraso elkarteko arduraduna eta kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Kualifikazioa.

HELBURUAK:

- Langileak kualifikatzea.
- Eskola kirolaren kalitatea hobetzea.

DESKRIBAPENA:

Eskola kirolean jarduteko beharrezko titulazio minimo bat eskatuko da, eskola kirolean entrenatzaile edo hezitzaile formatuak egoteko.

Hori horrela, pertsona hauek gutxienez TAFYD izatea eskatuko da udal eta guraso elkartetik.

ZER ESPERO DA?

Hezitzaile kualifikatuak lortzea, eskola kirolaren kalitatea hobetzeko.

PROIEKTUA: Kontratazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Guraso elkartea.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Kontratazioa.

HELBURUAK:

- Kontratazioak modu egoki baten egitea.
- Langileek lan baldintza duinak izatea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan, udalak guraso elkarteari laguntza eskaintzea izango da asmoa. Hau da, arlo honetan udalean dagoen pertsonak guraso elkarteari laguntza eskaintzea izango da asmoa, modu honetan, kontratazio egoki batzuk lortuko dira eta bestetik langilea modu duin baten egongo da lanean eta ez bolondres gisa.

ZER ESPERO DA?

Bolondres kopurua txikitu eta kontratazio egokia egitea.

PROIEKTUA: Eskumenak handitzeko proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta guraso elkarte.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakaria.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Eskumena.

HELBURUAK:

- Herriko eskola kirola proposatzea.
- Eskumena handitzea besterik ez bada.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan herriko eskola kirola proposatzea da helburua. Hau da, herriko haurren artean burutzen dena eta astebururo Bergarara edo Elgetara joatea saihestuko lukeena. Hau aurrera aterako ez balitz, proiektu honetan bigarren zatian azalduko litzakeen bezala jardunaldi gehiago Antzuolan egitea izango litzake asmoa.

Beraz, idatzi honetan bi zati egongo ziratekeen, lehenengoa eskola kirol propioari buruzkoa eta bigarrena eskumen gehiago lortzearena.

ZER ESPERO DA?

Eskumen totala edo dutena baino handiagoa lortzea.

PROIEKTUA: Kirol elkartze ehuneko klubekin konbenio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta guraso elkarte.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakaria.

GAIA/ARLOA: Jarduera aniztasuna.

HITZ GAKOAK: Konbenioa.

HELBURUAK:

- Espezializazio goiztiarra atzeratzea.
- Herriko elkarte desberdinekin akordioak lortzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen bidez, herriko elkarte eta kolektibo desberdinei espezializazio goiztiarraren desabantailak eta kirol anitzaren abantailak esplikatzeko da

asmoa. Modu honetan, konbenio bat lortu eta kirol bakoitzaren arabera adin tarte zehatz baterarte ezin izango da jarduera bakar bat gauzatu.

ZER ESPERO DA?

Espezializazio goiztiarra ekidin eta espezializazioa adin tarte egoki baten ematea.

PROIEKTUA: Jarduera gutxituen proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta guraso elkarteak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Jarduera aniztasuna.

HITZ GAKOAK: Jarduera gutxituak.

HELBURUAK:

- Dauden jarduera desberdinak praktikatzeko aukera izatea.
- Beste herrialde batzuetan egiten dituzten jarduerak gurean ere egitea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honek eskola kiroleko egutegian jarduera berriak sartzea du helburu. Hau da, gutxi egiten diren edo eta antzinan bai baina gaur egun egiten ez diren eta gure kulturaren barne izan diren jarduerak sartzea du helburu. Jarduera horiek besteak beste, herri kirol batzuk; gure aitona amonaren jolasak; kanikak; ziba... eta horrelakoak izango ziren. Honez gain, Antzuolako Anelkar elkartearen laguntzaz ere, asteburu baten Afrikako jolasak egiteko aukera ere egongo litzake.

ZER ESPERO DA?

Aniztasun handiagoa ematea eskola kirolari eta honekin batera haurrek joko jolas berriak ikastea.

PROIEKTUA: Aniztasun proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta guraso elkarteak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Jarduera aniztasuna.

HITZ GAKOAK: Aniztasuna.

HELBURUAK:

- Betiko jarduerak gutxitu eta ahalik eta jarduera mota desberdin gehien sartzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen bidez, betiko jarduerak ahalik eta gehin murriztu eta aldi berean jarduera berriak sartzea da helburu. Hau da, gaur egun gure inguruan indar handia hartzen ari diren jarduera berriak ere bertan sartzea eta betitik egon diren jarduera horiei duten garrantzi handi hori gutxitzea.

ZER ESPERO DA?

Jarduera aniztasuna handitzea.

PROIEKTUA: Klub eta eskola kirol proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta eskola kiroleko arduradunak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria eta klubeko ordezkari bat.

GAIA/ARLOA: Pilota.

HITZ GAKOAK: eskola kirola eta kluba.

HELBURUAK:

- Eskola kirola eta klub arteko harremana handitzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen bidez, eskola kirol eta pilota klubaren arteko harremana handitzea da helburu. Horretarako, klubak esku pilotako saioak ematea da helburua. Hau da, esku pilota tokatzen denean ematea, klubeko kideek monitoreei laguntzea da helburua. Modu honetan, euskal pilota hobeto erakutsiko da eskola kirolean eta aldi berean harremana sendotu egingo dute.

ZER ESPERO DA?

Harremana hobetzea eta eskola kirolean esku pilota ahalik eta ondoen ematea.

PROIEKTUA: Haurrak pilotari proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Guraso elkarte eta udala

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Jarduera aniztasuna.

HITZ GAKOAK: Haurra eta pilota.

HELBURUAK:

- Hurrei pilota gerturatzea.

DESKRIBAPENA:

Eskola kiroleko programazioaren barrenean pilota sustatzeko ekintza desberdinak sartzeari. Hori, klubeko kideekin elkarlanean egingo da. Bai aste barruko saioak eta baita asteburutako jarduerak.

ZER ESPERO DA?

Herriko hurrek pilota ezagutu eta praktikatzeko hastea.

PROIEKTUA: Pilota eta kultura proiektua

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta guraso elkarte

ARDURADUN FISIKOA: Kirol eta kultura teknikaria eta guraso elkarteko arduraduna.

GAIA/ARLOA: Jarduera aniztasuna

HITZ GAKOAK: Konbenioa

HELBURUAK:

- Pilotak euskal kulturaren duen eragina eskola kirolaren bidez, hurrei transmititzea.

DESKRIBAPENA:

Aurreko proiektuarekin elkarlanean joango litzake proiektu hau. Hori horrela, aste barruko saioetan, euskal pilotak kulturaren izan eta duen eragina azaltzen joatea izango zen helburua. Ondore, asteburuko saio batean, Oka jolas bat ezarriko baita pilota eta kulturaren inguruan.

ZER ESPERO DA?

Kultura eta pilotak duten lotura, haurrek ikastea.

PROIEKTUA: Identitate eta atxikimendu proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Udala eta guraso elkarteak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria eta guraso elkarteko arduraduna.

GAIA/ARLOA: Jarduera aniztasuna.

HITZ GAKOAK: identitatea eta atxikimendua.

HELBURUAK:

- Eskola kirolarekin identifikatzea herriko haurrak.
- Eskola kirolean jarduteko gogoia izatea haurrek.

DESKRIBAPENA:

Bertan, txikitatik eskolaren bitartez haur hauei eskola kirolak duen garrantzia eta bertan gustura jardungo dutela transmititzea da helburua. Horretarako, haur hauen gurasoentzako txantiloak egingo dira informazioarekin eta honez gain, haurrei eskola kirolean sartu baino urte bat lehenago, eskola kirolean dauden beste haurrekin jarduteko aukera eskaintzea da helburua aste baten. Modu honetan, zer dagoen eta beste haurrek euren esperientziak kontatuko dizkie.

Azkenik, behin hasita daudela eskola kirola praktikatzeko jarraitzeko asmotan, urtetik urtera urtean ordaindu behar den kuota jaitsi egingo da apur bat.

ZER ESPERO DA?

Haurrek eskola kirolean hasteko gogoia handitzea eta behin hasita bertan mantentzea.

8.3. OLALDE KLUBAREN PROIEKTUEN FITXAK:

PROIEKTUA: Klubaren estruktura finkatzeko klub proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak eta lehendakari ordeak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Kudeaketa eta klub proiektua.

HELBURUAK:

- Estrukturaketa egitea.
- Klub proiektuan sartzea.
- Antolaketa egitea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen helburua egoera honetako klub batek izan beharko lukeen estruktura eta antolaketa egoki bat gauzatzea izango da. Horretarako, Gipuzkoako pilota federazioko klub proiektuan parte hartu eta hauek eskaintzen dituzten aukerekin proiektua gauzatzea izango litzateke egokiena.

ZER ESPERO DA?

Klubaren berrantolaketa egoki bat egitea klub proiektuaren bitartez. Horrela, kudeaketa berri bat hasiz.

PROIEKTUA: Funtzioak finkatzeko proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordeko kide guztiak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Funtzioak.

HELBURUAK:

- Estrukturaketa egin ondorengo funtzioak finkatzea.
- Kide bakoitzaren zereginak zeintzuk diren argi ezartzea,.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen helburua egoera honetako klub batek izan beharko lukeen estruktura eta antolaketa egoki bat gauzatu ondoren, kide bakoitzaren zereginak zeintzuk izango diren definitzea izango da.

ZER ESPERO DA?

Klubaren berrantolaketa egoki bat egitea klub proiektuaren bitartez. Horrela, kudeaketa berri bat hasteko beharrezkoa izango da funtzio hauek ongi deskribatu eta definitzea.

PROIEKTUA: Entrenatzaileen formazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakaria eta entrenatzaileak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Formazioa.

HELBURUAK:

- Klubeko kide desberdinek beharrezkoa duten formazioa jasotzea.
- Klubak lehenengo pausoak ematea profesionalizaziora.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen helburua egoera honetako klub bateko kideek eduki beharko luketen formakuntza bat eskaintzea izango da klubeko kideei. Hori horrela, klubak aukera emango die ateratzen diren formakuntza desberdinetan apuntatzeko, beti ere klubaren diru laguntzarekin.

ZER ESPERO DA?

Klubeko kideek poliki- poliki beharrezkoa den jakintza eta formakuntza lortzea.

PROIEKTUA: Fidelizazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakaria.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Fidelizazio.

HELBURUAK:

- Klubeko prestatzaileak gustura sentitzea klubean.
- Klubeko langile edo kideak urte askoan bertan jarraitzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen bidez, klubean dauden kideak klubeko parte sentitu eta egiten dutenaz disfrutatzea nahi izango da. Izan ere, hau lortuz gero, klubak urtero ez ditu entrenatzaile eta prestatzaile berriak bilatu beharko. Beraz, proiektu honetan ekintza desberdinak agertuko dira fidelizazio hori lortzeko asmotan.

ZER ESPERO DA?

Klubeko kideak urte luzez klubean mantentzea.

PROIEKTUA: Eskaintzen urteko planifikazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: kirol zuzendaria eta zuzendaritza batzordeak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Eskaintza eta planifikazioa.

HELBURUAK:

- Eskaintzak finkatzea.
- Eskainiko den eskaintza planifikatzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honekin urtean zehar aurrera eramango diren eskaintzak finkatzea izango da helburu. Horrela, urtean zehar momentu zehatz bakoitzean klubak zer egin beharko duen eta nork eramango duen Aurrera jakingo da. Beraz, aurrendenboraldian egitea beharrezkoa izango dien proiektua da.

ZER ESPERO DA?

Urteko eskaintzen planifikazio guztia modu idatzi batean edukitzea.

PROIEKTUA: Pilota faseak bermatzeko proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: kirol zuzendaria.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Pilota faseak.

HELBURUAK:

- Pilota fase desberdinak finkatu eta deskribatzea.
- Aldi bakoitzeko edukiak finkatzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan euskal pilota ikasteko metodologia landuko da. Hau da, euskal pilota nola erakutsi behar den eta zer fase dituen. Behin hau eginda, faseak aztertuta eta klubeko antolaketari atxikituko zaio. Honi esker, denboraldia modu egoki batean antolatu ahalko da fase desberdinen arabera.

ZER ESPERO DA?

Pilota ikasteko faseak antolatu eta klubeko estrukturan atxikitzea.

PROIEKTUA: Entrenamendu antolaketa egokiaren proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol zuzendaria eta entrenatzaileak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Entrenamenduak.

HELBURUAK:

- Urteko entrenamenduen planifikazioa egitea.
- Planifikazio hau aurreko proiektuaren arabera egitea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu hau, pilota faseak bermatzeko proiektua Aurrera eraman ondoren egin beharreko lana da. Hau da, behin fase guztiak eta ezarrita, denboraldia prestatu beharko da antolaketa horren arabera. Hori horrela, proiektu honetan idatzizko entrenamenduen planifikazio bat egingo da, non, aurrerako entrenatzaileek denboraldian zehar bete egingo duten.

ZER ESPERO DA?

Faseen arabera urteko entrenamenduen planifikazioa aurrera eramatea.

PROIEKTUA: Barne harreman proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Kudeaketa.

HITZ GAKOAK: Barne harremanak.

HELBURUAK:

- Barne harremana hobetzeko harreman sare egoki bat egitea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan barne egituraketa beharrezkoa izango den harreman sare bat definituko da. Hots, klubeko kide desberdinek nola jokatu beharko duten definituko da. Honez gain, euren arteko harremanak indartzeko ekintzak definituko dira proiektu honen barrenean.

ZER ESPERO DA?

Klubeko kideen arteko harremana egokia eta zehatza izatea. Hau da, nork zeinekin hitz egin behar duen argi izatea.

PROIEKTUA: Arlo honetako pertsona aditu baten kontratazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordeko kide guztiak.

GAIA/ARLOA: Finantzazioa.

HITZ GAKOAK: Pertsona adituaren kontratazioa.

HELBURUAK:

- Pertsona aditu bat kontratatzea.

DESKRIBAPENA:

Klubaren finantzaketa emateko beharrezkoa da diru pribatua izatea klubak. Hori horrela, babesle pribatu hauek lortzeko pertsona bat kontratatuko da.

ZER ESPERO DA?

Kontratazio honi esker klubeko diru sarrerak handitzea espero da.

PROIEKTUA: Udalarekin kolaborazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Finantzazioa.

HITZ GAKOAK: udala eta kolaborazioa.

HELBURUAK:

- Udalarekin hitzarmena sinatzea.
- Diru sarrerak handitzea.

DESKRIBAPENA:

Klubaren finantzaketa emateko beharrezkoa da diru pribatuaz gain diru publikoa izatea. Hori horrela, udalarekin hitzarmenak sinatzeko helburuarekin kolaborazio proiektua eramango da aurrera.

ZER ESPERO DA?

Udalari kolaborazio proiektu bat eskaini eta honen truke diru publikoko kantitate bat lortzea.

PROIEKTUA: Foru Aldundiarekin kolaborazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Finantzazioa.

HITZ GAKOAK: Foru Aldundia eta kolaborazioa.

HELBURUAK:

- Aldundiarekin hitzarmena sinatzea.
- Diru sarrerak handitzea.

DESKRIBAPENA:

Klubaren finantzaketa emateko beharrezkoa da diru pribatuaz gain diru publikoa izatea. Hori horrela, Aldundiarekin hitzarmenak sinatzeko helburuarekin kolaborazio proiektua eramango da aurrera.

ZER ESPERO DA?

Aldundiari kolaborazio proiektu bat eskaini eta honen truke diru publikoko kantitate bat lortzea.

PROIEKTUA: Federazioarekin kolaborazioa proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Finantzazioa.

HITZ GAKOAK: Federazioa eta kolaborazioa.

HELBURUAK:

- Federazioarekin kolaborazioa handitzea.
- Diru sarrerak handitzea.

DESKRIBAPENA:

Klubaren finantzaketa emateko beharrezkoa da diru pribatuaz gain diru publikoa izatea. Hori horrela, federazioarekin kolaboratzeko hitzarmenak sinatzeko helburuarekin kolaborazio proiektua eramango da aurrera.

ZER ESPERO DA?

Federazioarekin kolaborazioan gauza desberdinak egitea eta honi esker, diru kantitate bat lortzea klubak.

PROIEKTUA: Aurrekontu zehatzak egiteko pertsona aditu baten kontratazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Finantzazioa.

HITZ GAKOAK: Aurrekontu zehatzak eta kontratazioa.

HELBURUAK:

- Pertsona bat kontratatzea.
- Aurrekontu zehatzak egitea.

DESKRIBAPENA:

Klubaren finantzaketa emateko beharrezkoa da diru pribatuaz gain diru publikoa izatea. Hori horrela, udalarekin hitzarmenak sinatzeko helburuarekin kolaborazio proiektua eramango da aurrera.

ZER ESPERO DA?

Udalari kolaborazio proiektu bat eskaini eta honen truke diru publikoko kantitate bat lortzea.

PROIEKTUA: Fidelizazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordeko kideek.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Fidelizazioa.

HELBURUAK:

- Pilotari eta bazkideen fidelizazioa lortzea.

DESKRIBAPENA:

Kluba osatzen duten pertsonen fidelizazio burutzea du helburu proiektu honek. Horretarako, kanpaina berezi bat egitea da helburua pertsona hauei klubeko zati direla erakutsi eta kluba bera indartzen laguntzeko beharrezkoak direla erakusteko.

ZER ESPERO DA?

Klubeko kideak direnak klubean urte askoan gelditzea.

PROIEKTUA: Bazkide berrien proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordea.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Bazkideak.

HELBURUAK:

- Bazkide kopurua handitzea.
- Bazkide berriak urtero lortzea.

DESKRIBAPENA:

Bazkide kopurua handitzeko asmoz, hiru publizitate kanpaina aurrera eramango dira denboraldian zehar. Bata hasiera, bestea gabonetan eta azkena pilota astean. Horretarako, herrian kartel desberdinak ezarriko dira eta honez gain sare sozial eta web orrian ere informazio jarriko da.

ZER ESPERO DA?

Bazkide kopurua handitzea.

PROIEKTUA: Kluben asteko harreman sarearen proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Harreman sarea.

HELBURUAK:

- Bailarako klubekin harremanak handitzea.
- Harreman sare bat sortzea pilota bultzatzen duten erakundeekin.

DESKRIBAPENA:

Euskal pilota indartzen duten Debagoiena bailarako pilota klubuen arteko harremana hobetzea du helburu proiektu honek. Horrela, hilabetero bertako kideek bilera bat egitea izango litzateke asmoa. Gainera, modu honetan klub desberdinek euren egoerak eta arazoak azaltzeko aukera bat izango lukete eta besteek laguntzeko aukera.

ZER ESPERO DA?

Klub arteko harremana hobetzea.

PROIEKTUA: Kluben arteko kolaborazio proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Lehendakariak.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Kluba eta kolaborazioa.

HELBURUAK:

- Kolaborazio lanak egitea klubek euren artean.
- Pilotaria bata besteari uztea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen bidez denboraldi hasieran harreman sarea osatu duten klubeko kideak elkartzea izango litzake asmoa. Horrela, klub bakoitzak zer arazo dituen mahai ganean jarriko lituzke eta besteek laguntzea izango litzake asmoa. Adibidez, baliteke klub batean pilotari gehiegi egotea eta beste batzuetan gutxiegi. Hori horrela, kolaborazio honi esker pilotariek nahi izanez gero beste klub baten jokatzeko aukera izango lukete denboraldi horretan zehar.

Modu honetan, arazo desberdinei aurre egingo liekete klubek.

ZER ESPERO DA?

Kluben arteko kolaborazio sortu eta indartzea.

PROIEKTUA: Transparentzia proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: zuzendaritza batzordea.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Transparentzia.

HELBURUAK:

- Klubaren irudia garbitu eta irudia hobetzea.
- Diru kontu zein kirol kontu guztiak bazkide guztiek ikusteko aukera eskaintzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen bidez, urtean zehar egiten diren mugimendu guztiak argitaratzea izango da helburu. Hori horrela, urtean egiten den guztia idatzi batean batzea edukiko du helburu eta urte amaierako batzar orokorrean bazkide orori erakustea. Horrela, kluba gardena dela ikusiko dute bazkide zein herritarrek.

ZER ESPERO DA?

Klubaren irudia hobetzea.

PROIEKTUA: Ate irekiak proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordea .

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Ate irekiak.

HELBURUAK:

- Herritarrei euskal pilota gerturatzea.
- Herrian klubak egiten duen jarduna azaltzea.

DESKRIBAPENA:

Klubaren lana ezagutzeko asmotan ate irekien asteburu bat sortzea da proiektu honen helburua. Hau, denboraldia baino lehenago izango litzateke eta bertan, asteburu osoko ekintzak ezarriko ziren.

Larunbat goizean, klubaren inguruko historia eta egiten duen lana azalduko zitzaaien herritarrei.

Arratsaldean, herriko pilotarien arteko zein parte hartzea nahiko luketen pertsona guztien arteko txapelketa egingo zen.

Igande goizean, pertsona desberdinentzako entrenamendua egingo zen eta bazkal ostean txapelketako finalak jolastu.

ZER ESPERO DA?

Jende berria klubera gerturatzea.

PROIEKTUA: Ekintza astea proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordeak.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Ekintza astea.

HELBURUAK:

- Jendea klubera gerturatzea.
- Pilota indartzea.

DESKRIBAPENA:

Denboraldia amaitzera dioanean eramango da aurrera proiektu hau. Asteazkenean zehar, ekintza desberdinak aurrera eramango dira, denak euskal pilotaren ingurukoak. Hitzaldiak, modalitate desberdinen inguruko jardunaldiak, bazkari herrikoia, pilota partida profesionala... Modu honetan, pilota indartuko dela iruditzen zait eta aldi berean jendeak pilota klubak egiten duen lana ikusiko du.

ZER ESPERO DA?

Herritar zein kanpokoek Olalde klubak egiten duen lana ikusi eta pilota ezagutzea.

PROIEKTUA: Web orri proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Administrazio orokorreko kidea.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Web orria.

HELBURUAK:

- Web orria sortzea.
- Web orriari esker informazio iturri berri bat edukitzea.

DESKRIBAPENA:

Olalde klubarekin web orria sortzea izango da helburua. Bertan, informazio guztia ezarri. Honez gain, bazkide egiteko aukera ere bertan ezarriko da.

ZER ESPERO DA?

Marketing egoki bat egitea Web orriari esker.

PROIEKTUA: Sare sozialen proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Administrazio orokorreko kidea.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Sare sozialak.

HELBURUAK:

- Sare sozialen munduan sartzea.
- Informazioa lortu zein zabaltzeko bide berriak izatea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honek sare sozial desberdinetan izena eman eta hauek erabiltzea izango du helburu. Modu honetan, informazio sarea zabaltzeko aukera handitu egingo da, jende gehiagori informazio helaraziz.

ZER ESPERO DA?

Sare sozialen bidez informazio jende gehiagori heltzea.

PROIEKTUA: Emakumea pilotari.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Zuzendaritza batzordea.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Emakumea.

HELBURUAK:

- Pilota emakumeei gerturatzea.
- Emakume gehiago pilotan hastea herrian.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honen helburua pilota herriko emakumeei gerturatzea izango litzateke. Hori horrela, federazioan martxan dagoen proiektua hartu eta herriko egoeretara berrantolatzea izango zen asmoa. Horrela, herrian dauden emakumeak pilotan hasi edo gerturatzeko asmoarekin.

ZER ESPERO DA?

Emakumeak pilotan hastea.

PROIEKTUA: Gaztetxea pilotan proiektua.

AURRERA ERAMANGO DUEN ERAKUNDEA: Olalde Euskal Kirolak.

ARDURADUN FISIKOA: Kirol teknikaria.

GAIA/ARLOA: Marketing.

HITZ GAKOAK: Gaztetxea.

HELBURUAK:

- Gazteak pilotan jardutea.
- Kluba gaztetxeko kolektiboari gerturatzea.
- Bi kolektiboen arteko harremana sustatzea.

DESKRIBAPENA:

Proiektu honetan kluba eta gaztetxearen artean harreman bat sortzea da helburua. Horretarako, klubak herriko gazteentzako pilota txapelketa alternatibo bat sustatuko du. Txapelketa hau urria ingurua hasiko litzateke eta maiatzean amaitu. Astebururo, partidak egongo ziratekeen parte hartzen duten pertsonen artean.

ZER ESPERO DA?

Gazteentzako pilota beste modu batean sustatzea.

9. BALORAZIO FITXA:

Azkenik, proiektu bakoitzaren balorazioa egitea ere oso interesgarria da. Hau da, balorazio fitxa honekin proiektuarekin esperotako emaitzak lortu diren edo ez eta zer arazo izan diren ibilbidean zehar ikusteko aukera egongo da. Horrela, hurrengo baterako zer hobetu beharko litzatekeen ere adierazteko aukera egonik.

Horregatik guztiagatik, behin proiektua aurrera eramanda, fitxa honen garrantzia oso handia da.

PROIEKTUA AURRERA ERAMAN ONDOREN

PROIEKTUAREN IZENA:

AURRERA ERAMAN DUEN ERAKUNDEA ETA PARTE HARTU
--

DUTENAK:

ARDURADUN FISIKOA:

DENBORALIZAZIOA:

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA:

BALORAZIOA ETA ONDORIOAK:

EMAN DIREN ARAZOAK:

HOBETZEKOAK:

10. ONDORIOAK:

Lan hau egin aurretik buruan nuen ideia, hasieran esan dudana bezala Antzuolako herrian euskal pilota sustatzea zen eta horregatik, lan hau aurrera eramatea pentsatu nuen.

Hasiera batean nuen ideia, herriko pilota kluba bakarrik aztertzea zen, baina, hau egin ondoren ikusi nuena izan zen arazo bakarra ez zela pilota klubarena, honetaz gain beste hainbat agentek zer esan handia zutela herriko pilotaren egoeraren inguruan. Hori horrela, hiru agente garrantzitsuenak aukeratu eta hauen azterketa bat egiten hasi nitzen. Bertan, Mestrek erabilitako metodologia aurrera eraman da eta honen ondorioz lana bi prozesu nagusitan banatu beharra egon da. Hau da, lehenengoan, inguruaren azterketa bat egin da, non, lanaren zati teorikoa izan den. Bertan, aurretik aipatuta hiru agente horiek aztertu dira, euren antolaketaren ikuspuntutik.

Behin hau eginda, lanaren bigarren zatian sartu nitzen. Hau da, zati praktikoa deitutakoan. Bertan, arazoak identifikatzeko bideari ekin nion. Bide hau, ez zitzaidan batere erraza egin, baina, klub edo elkarte hauetako jende desberdinarekin elkartu ondoren arazo hauek definitzea lortu eta azken pausura pasatzeko urratsa eman nuen.

Azken pausu hau zen, hasiera batetik buruan nuen ideia. Hau da, zerbait planteatzea etorkizunean herriko pilotak indarra hartu dezan, hots proiektu batzuk aurkeztea.

Proiektu hauek ez dira amaierakoak, ezta gutxiago ere. Hasieratik, nire ideia lehen adreilua jartzea izan da. Hurrengo urteetan gaur egun dagoen egoera aldatzea nahi bada hutsetik ez dadila hasi. Hau da, proiektu honek bere lan horretarako oinarria izatea nahiko nuke, hots, minimo bat izatea eta ideia hauetatik abiatuta plan estrategiko bat osatzea.

Horregatik, proiektu hauek izenburuan jartzen dudana bezala, pilotari bultzada bat emateko bidea izango dira, baina ez dira zertan amaierako proiektuak izan. Hots, batzuk daudenean utziko direla pentsatzen dut, baina, beste batzuk abiapuntu izango dira. Hori horrela, etorkizunean nik garatu dudana lan honek izan duen garrantziaz jabetzea espero dut.

11. BIBLIOGRAFIA:

Bujanda, J. (2014). Plan estratégico 2010-2014. Federación Alavesa de Baloncesto.

Colás, P. & De Pablos, J. (2004). La formación del profesorado basada en redes de aprendizaje virtual: aplicación de la técnica DAFO. Teoría de la Educación: Educación y Cultura en la Sociedad de la Información, (5), 4.

Eskola Kirola, Kirol Zerbitzua: Gipuzkoako Foru Aldundia.(2016). *Kirolzerbitzua.net*. 2016ko urtarrilaren 28an kontsultatua, hemen <http://www.kirolzerbitzua.net/eskolakirola/op10eus.asp>

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa - Federación Guipuzcoana de Pelota Vasca. (2016). *Gipuzkoapilota.eus*. 2016ko urtarrilaren 23an kontsultatua, hemen <http://www.gipuzkoapilota.eus/pub/documentacion.asp?idioma=eu&IdGrupo=22>

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa.(2015). Misioa eta ikuspegia. 2016ko urtarrialaren 26an kontsultatua, hemen [http://www.gipuzkoapilota.eus/doc/documentos/GEPF.%20Misioa%20eta%20ikuspegia\(2\).pdf](http://www.gipuzkoapilota.eus/doc/documentos/GEPF.%20Misioa%20eta%20ikuspegia(2).pdf)

Guanolema, P. & Ramiro, B. (2013). El ciclo PDCA (programar, implantar, comprobar, aplicar) en los procesos crediticios y su impacto en la liquidez de la Cooperativa de Ahorro y Crédito PAIS Ltda. en la ciudad de Riobamba.

Instituto Nacional de Estadística.(2016). 2016ko urtarrilaren 28an kontsultatua, hemen <http://ine.es/jaxi/tabla.do>

Lazzari, L. & Maesschalck, V. (2002). Control de gestión: una posible aplicación del análisis FODA.

Licencias — Portal del Consejo Superior de Deportes. (2016). *Csd.gob.es*. 2016ko otsailaren 2an kontsultatua, hemen <http://www.csd.gob.es/csd/asociaciones/1fedagclub/03Lic>

Mestre Sancho, J. A. (2004). Planificación deportiva. Teoría y práctica (3^o ed.). Barcelona: INDE.

Rojas, F. A. (2004). Cómo se hace un plan estratégico: la teoría del marketing estratégico. (4^a ed). Madrid: Esic Editorial.

Romantzeabala Aldasoro, E; Ruiz De Arcaute Graciano, F.J.(2015). Análisis estratégicoaren tresnak. Kirol erakundeen kudeaketa tresnak klasean emanda, otsaila, Espainia.

Sánchez, D.B.(1993). Perspectivas de la evaluación en educación física y deporte. *Apuntes: Educación física y deportes*, (31), 5-16.

Sarrera - gipuzkoakirolak. (2016). *Gipuzkoakirolak.eus*. 2016ko urtarrilaren 23an kontsultatua, hemen <http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/programa>

Talancón, H. P. (2007). La matriz FODA: alternativa de diagnóstico y determinación de estrategias de intervención en diversas organizaciones. *Enseñanza e investigación en psicología*, 12(1), 113-130.

Xabide kultur kudeaketa eta komunikazioa. (2006). Plan estratégico de la pelota vasca 2006-2010.

Elkarrizketak:

Balardi,A.(2016).Antzuola.

Etxeberria, J,C. (2016). Donostia.

Larrañaga, J.(2015). Antzuola.

Zabalo,V.(2016). Antzuola.

12. ERANSKINAK

GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOA		
PLANAK	PROGRAMAK	PROIEKTUAK
KUDEAKETA PLANA	PILOTA ALDIEN PROGRAMA	Pilota aldiak behar bezala definitzeko proiektua
		Pilota aldaketaren inguruko proiektua
	ESKUMEN PROGRAMA	Eskumenak handitzeko proiektua
		Eskumenak negoziatzeko proiektua
JARDUERA FISIKO ETA PILOTA PLANA	EMAKUMEEN PARTE HARTZE PROGRAMA	Emakumea pilotari proiektua
		Txapelketa alternatiboen proiektua
	JENDE DESBERDINARENTZAKO PILOTA PROGRAMA	Inklusibitatea pilotarekin proiektua
		Ekintza alternatiboen proiektua
		Topaketa proiektua.
MARKETING PLANA	KAPTAZIO PROGRAMA	Bazkide berrien proiektua
		Fidelizazio proiektua
		Zabalkuntza eta sustatze proiektua
		Ate ireki proiektua
	FEDERAZIO ARTEKO HARREMAN PROGRAMA	Federazio sare proiektua

ESKOLA KIROLA		
PLANAK	PROGRAMAK	PROIEKTUAK
KUDEAKETA PLANA	PROFESIONALIZAZIO PROGRAMA	Langileak kualifikatzeko proiektua
		Kontratazio proiektua
JARDUERA ANIZTASUN PLANA	ESKUMEN PROGRAMA	Eskumena handitzeko proiektua
	ESPEZIALIZAZIO GOIZTIARRA ATZERATZEKO PROGRAMA	Kirol elkartze ehuneko klubekin konbenio proiektua
PILOTA PLANA	ANIZTASUN PROGRAMA	Jarduera gutxituen proiektua
	HARREMAN PROGRAMA	Aniztasun proiektua
KAPTAZIO PLANA	PILOTA INDARTZEKO PROGRAMA	Klub eta eskola kirol proiektua
	HERRIKO HAURRAK ESKOLA KIROLAREKIN IDENTIFIKATZEKO PROGRAMA	Haurrak pilotari proiektua
KAPTAZIO PLANA	ESKOLA KIROLA PRAKTIKATZEN JARRAITZEKO PROGRAMA	Pilota eta kultura proiektua
	HERRIKO HAURRAK ESKOLA KIROLAREKIN IDENTIFIKATZEKO PROGRAMA	Identitate eta atxikimendu proiektua.
	ESKOLA KIROLA PRAKTIKATZEN JARRAITZEKO PROGRAMA	Atxikimendu proiektua

OLALDE EUSKAL KIROLAK

PLANAK	PROGRAMAK	PROIEKTUAK	
KUDEAKETA PLANA	KLUBAREN ESTRUKTURA ETA FUNTZIO PROGRAMA	Klubaren estruktura finkatzeko klub proiektua gauzatu	
		Funtzioak finkatzeko proiektua	
	ENTRENATZAILEEN FORMAZIO ETA PROFESIONALIZAZIO PROGRAMA	Entrenatzaileak formazioetan apuntatzeko proiektua	
		Fidelizazio proiektua	
	BARNE ANTOLAKETA ETA EKINTZA ESKAINTZEN PROGRAMA	Eskaintzen urteko planifikazioaren proiektua	
		Pilota faseak bermatzeko proiektua	
		Entrenamendu antolaketa egokiaren proiektua	
		Barne harreman proiektua	
	FINANTZA PLANA	BABESLE PRIVATUAK LORTZEKO PROGRAMA	Arlo honetako pertsona aditu baten kontratazio proiektua
		HITZARMEN PUBLIKOAK LORTZEKO PROGRAMA.	Udalarekin kolaborazio proiektua
Foru Aldundiarekin kolaborazio proiektua			
Federazioarekin elkarlan proiektua			
AURREKONTU ZEHATZAK GAUZATZEKO PROGRAMA		Aurrekontu zehatzak egiteko pertsona aditu baten kontratazio proiektua	
MARKETING PLANA		KAPTAZIO PROGRAMA	Fidelizazio proiektua
	Bazkide berrien proiektua		
		Kluben arteko harreman sarearen proiektua	

	OLALDE ETA INGURUKO KLUBEN ARTEKO HARREMAN PROGRAMA	Kluben arteko kolaborazio proiektua
	IRUDIA HOBETZEKO PROGRAMA	Transparentzia proiektua
		Ate irekiak proiektua
		Ekintza astea proiektua
	SARE SOZIAL ETA WEB ORRI PROGRAMA	Web orri proiektua
		Sare sozialen proiektua
	KOLEKTIBO DESBERDINEI GERTURATZEKO PROGRAMA	Emakumea pilotari proiektua
		Gaztetxea pilotan proiektua